

## Bikiena (Sinestesia delakoa baliatuz)

Ane eta Edurne ahizpa bikiak ziren, berdin-berdinak itxuraz baina ezberdinak izaeraz; gatza eta azukrea bezalakoak ziren, behin dastatuta zeharo desberdinak. Hasieran jostagarria zen hura: nortasunak trukatzuz gurasoak eta maisu maistrak engainatzen zituzten, desertuan ispilatzeek ibiltaria legez engainatzen baitzituzten helduak. Jolas horretan zebiltzan gau batean lo geratu ziren biak, ohe leun eta beroan goxo-goxo, eta esnatu zirenean, ez zuten gogoratzen jolasa non utzi zuten lokartu baino lehen. Eta Anek ez zekien Ane ala Edurne zen. Eta Edurneri gauza bera gertatzen zitzaion. Arrazoi horregatik, berdintsuak izatea gero eta jasangaitzagoa egiten zitzaien. Eltxo batek belarrarian egiten duen burrunda hotsaren antzera, lo egin eta ezin, zarata jasangaitza. Biek gauza bera pentsatzen zuten: “munduan ez dago tokirik biontzat; bakar bat geratu behar da”. Aspalditik astroek duten gatazkaren pare, eguzkia dagoenean ezin ilargirik agertu, ilargia dagoenean ezin eguzkirik egon, zerua bietako batentzat soilik izan behar horrek mugatuta. Eta batak bestea hiltzeko plan sekretuak egiten hasi ziren. Isiltasunean, batak besteari buruz ezer jakin gabe, baina biak bestearen hilketa planifikatzen ari zirelarik, sekretuki. Egun batean, ohar anonimo bat jaso zuten biek: “Ustekabe bat hartu nahi baduzu, zoaz ibai gaineko sokazko zubira”. Soka zakar eta tentea zen zubikoa. Hura irakurrita, biak joan ziren hitzordura, alde zurretik bakoitzak zubiaren mutur bateko sokak erdi moztuz. Orain zubia ahul zegoen, soka moztu ondoren, hari eta kableen kirrinka entzuten baitzen. Zubiaren erdian elkartu zirenean, eskutik heldu ziren, esku leunetatik, eta une horretan zubiarekin batera erori eta ito egin ziren. Ur izoztua zegoen putzuan hondoratu ziren bikien bi gorpu urdinak. Inoiz ez zituen inork berriz ikusi. Baina, batzuetan, txorien kantu urduriak entzuten ziren, bikien elkarriketak imitatuko balituzte bezala.

**Eider**



## Bikiena (Sinestesia delakoa baliatuz)

Ane eta Edurne ahizpa bikiak ziren, berdin-berdinak, bi gerezi gorri-gorriren antzera. Hasieran oso jostagarria zen, zalapartarik gabe nortasunak trukatzu gurasoak eta maisu-maistrak eztiki engainatzen zituzten. Jolas horretan zebiltzan gau ilun eta hotz batean lo geratu ziren biak, eta goizeko behe-laino itxian esnatu zirenean, ez zuten gogoratzen jolasa non utzi zuten lokartu baino lehen. Eta Anek ez zekien Ane ala Edurne zen. Eta Edurneri gauza bera gertatzen zitzaion. Arrazoi horrengatik, berdintsuak izatea gero eta jasangaitzagoa iruditzen zitzaion eta hotzikarak eragiten zizkien. Biek gauza bera pentsatu zuten: mundu itsaskor eta garratz honetan ez dago tokirik biontzat, gupidagabeko aurreikuspenari jarraiki bakar bat geratu behar da. Eta batak isil-isilik, zaratarik gabe, bestea hiltzeko plan sekretuak egiten hasi ziren. Ostadarraren pareko egun koloretsu batean ohar anonimo bat jaso zuten biek, bihotzaren taupadak azkartuz: “Ustekabe ezti bat hartu nahi baduzu, zoaz ibai garden gaineko sokazko zubira”. Hura irakurrita, biak joan ziren zalapartaka hitzordura, alde zurretik zubiaren mutur bateko sokak erdi moztuz. Zubiaren erdian ile adats horixkak firin-faran elkartu zirenean, bata bestearen gorputza laztanduz eskutik helduta, une mikatz horretan zubiarekin batera erori eta ito egin ziren bi ahizpak, bi gerezi gorri-gorri beheranzko korrontean dantzatzuz.

**Iñaki Jauregialtzo “Jaltzo”**



## Elurrezko txotxongilo bi ("A" gabeko testua)

Bero egiten zuenez, eguzkipeko txokoruntz irten ziren bi txotxongilo izoztu. Eguzkipeko txoko hori osorik betetzen zuen herriko jende guzti horrek txotxongiloei ipini zizkieten bi begi zuzen-zuzen.

- Oso triste dirudizue, zer duzue? zioten txotxongiloek.

Beti irri egiten zuten eurek, triste zirudien jende guzti horri ere irri egiten zieten.

- Ezin dugu ezer egin bero honekin! oihu egin zuten herrikoek.
- Ikusiko duzue! Gurekin irri egingo duzue. Txotxongiloek pozik.

Ikuskizun txiki hori erditik moztuz, "KONTUZ!" egin zuten oihu iskinetik. Ez zuten ezer ulertzen txotxongiloek.

Gero berriro oso ozen herritarrek.

- KONTUZ, KONTUZ, KONTUZ! Ezin duzue hemen egon!

Gure bi txotxongilo ez ziren bero horren efektuez oroitu, ondorioz, urtu egin ziren, eguzkipeko txoko guztitik bi ur putzu borobil soilik utziz.

**Ur**



## **Eskoziako herri batean orri zuri bat daukan liburu bat erosi dut (Hasiera emanda, mikroipuin bat idaztea)**

Eskoziako herri batean orri zuri bat daukan liburu bat erosi dut. Biografia bat da. Edo autobiografia bat. Honezkero zahar xamar egongo den idazle eskoziar baten memoriak. Eguneroko baten formatua dauka.

Liburua ireki dudanean, umea zeneko memoriak ageri dira lehen orrialdeetan eta dena xehetasun ugariarekin kontatzen da. Dena deskribatzen da. Paisaiak, sentimenduak, koloreak, koloreen usainak... Guztiz harrapatu nau daukan abilezia horrek, begiekin ikusitako hura, hitzez, zehatz-mehatz, deskribatzekoa. Eta, horrekin batera, atentzioa eman dit ere datak emateko orduan duen zehaztasunak, egunaz gain, goiza edo arratsa den, edota zer ordu den ere zehazten baitu hasierako orrietan. Irakurtzen hasi naizenean, bertan nengoela irudikatu nezakeen xehetasun guzti horiei esker eta kontatzen zuen guztia bizitzen ariko banintz bezala sentitu dut. Eskoziako herri txiki baten barruan nengoen, XIX. mendeko baserritxo berritu batean, dena berde zegoen eta belar moztu berriaren usaina nahasten zen udako euri-ekaitzak lur sargoria jotzen duenean izaten duen usainarekin.

Aurrerago ordea, datarik idatzi beharrik ez dagoen eguneroko horietako bat bihurtu da. Prosa jarraitura egin du jauzi idazleak eta zenbakiak abandonatu ditu. Edo zenbakiek abandonatu dute idazlea, hobeto esanda. Agian segituan ohartu zen ez zela gai izango ongi gogoratzeko horrenbeste data. Hori dela eta, zehaztasuna galduz joan da eta, daten gabeziatik, deskribapen pobreetara pasa da. Konturatzerako, abandonatu ditu paisaien koloreak, aurpegietako espresioak, pertsonaien arropak. Pertsonaiaren bat desagertzera ere iritsi da. Eta Eskoziako herri txikiko baserria eta bertako usainak desagertu zaizkit niri.

Orduan agertu zait lehen orri zuria. Hasieran pentsatu dut akats bat izango zela, inprimategikoa ziur aski. Baina liburua irakurtzen jarraitu ahala gero eta orri zuri gehiago agertu da nire begien parean. Eta aurrera egin ahala, normalean kontrakoa gertatzen bazait ere, istoriotik gero eta kanporago sentitu dut neure burua. Protagonista izatetik, figurante izatera pasa naiz. Guztiz barruan egotetik, irakurle soil izatera.



Tartean, orri zuriak ugarituz joan dira. Gero eta galduago sentitu naiz eta ezin izan dut haria jarraitu. Kontakizunek kontu isolatuak ziruditen. Zentzurik gabekoak. Eta zenbat eta aurrerago joan, orduan eta orri zuri gehiago. Eta zenbat eta gehiago aurreratu, orduan eta inkoherentzia gehiago. Eta hutsune gehiago. Idatzitako orriek orri zuriek adina informazio eman didaten arte. Aurrerago, tartekatzen dira orri zuriak eta idatzitako orriak. Bat eta bat. Eta orri bat irakurtzeko bost, hamar edo hamabost orrialde zuri pasa behar izan ditudan arte. Hutsunez bete da istorioa. Burua hutsik geratu izan balitzaio bezala idazleari. Pertsonaitsu batek ikusten duen iluntasunarekin jarraitu du idazten. Eta desagertu zaizkio paisaiak, pertsonaiak eta aurpegiak, aurretik herriko baserriak eta usainak niri desagertu zaizkidan bezala. Dena desagertu da. Orri zuriak izan ezik. Bertan daude bata bestearen atzetik.

Liburuaren bukaerara iritsi naizen arte, eta bertan, ongi idatzitako epilogo batekin egin dut topo. Idazlearen emazteak idazten du eta honela hasten da. "Terry Pratchett (1948, Eskozia - 2015, Eskozia). Alzheimerrek eraman zuen..."

**Xanti**

